

## 9. GAIA:

# ERIZAINZAKO PRACTICUMAREN EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA URTEKA

Irakasle taldea  
ELORDI GÜENAGA, UDANE  
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER  
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA  
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER  
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ  
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

## **Ebaluazio formatiboa**

UPV/EHUko Graduako Titulu Ofizialetako Ikasleak Ebaluatzeko Arautegiak ezartzen duenez, ebaluazioak izaera formatiboa izango du, eta ikasleei informazio eta orientazio egokia eman beharko zaie, gaitasunen lorpen mailari buruz, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan egin beharreko hobekuntzak adierazi beharko dira (1). Zentzu berean, UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktikak Arautzen dituen Arautegia bat dator horrekin (2).


Bestalde, hainbat egilek azpimarratzen dute gaitasunen eta ikaskuntza emaitzen ebaluazioaren garrantzia, baita gaitasunak, metodologia eta ebaluazioa lerrokatzearen beharra ere (3-6).

Hori guztia kontuan hartuta, Erizaintzako Graduaren practicumaren ebaluazio mota erabakitzeko orduan, ebaluazio formatiboa egitea erabaki zen. Ikasleak bere ikaskuntzaren protagonista izan behar du, eta horren ardura hartu, eta irakasle tutoreen eta instruktoeen zeregina, berriz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gidatzea izango da (7).

## **Gogoeta eragiten duen ebaluazioa**

Garrantzitsua da ikaslea gaitasunen garapenaz jabetzea. Hori dela eta, gogoeta-praktikak eta autoebaluazioak barneratu ziren ebaluazio sisteman (7) (1. irudia).

Donostian Erizaintzako Gradua ezarri zenetik, gogoeta-ikaskuntza erizaintzako hainbat irakasgaitan lantzen den zeharkako gaitasunetako bat da; irakasgai horien barne daude practicumak. Praktiken Batzordeko kideek gaitasun horren garapena aztertu zuten, hezkuntzan aditua eta pedagogian doktorea zen pertsona baten gidaritzapean, eta erabaki zuten ikasleak bi gogoeta-praktika egin beharko zituela practicum bakoitzean: bat zikloaren erdialdean, eta beste bat hura amaitu aurretik. Gogoeta-praktika horiek egiteko 6 galdera planteatu ziren; 5 zikloaren erdialdean erantzun behar ziren, eta 1 zikloa amaitu aurretik (1. taula).



1. irudia. Ebaluazio formatiboan parte hartzen duten elementuak eta agenteak

1. taula. Gogoeta-praktikan planteatutako galderak

<b>Zikloaren erdialdean</b>	Nola sentitzen naiz praktketan? Zergatik?
	Egoera bat deskribatzen dut "erabiltzaileekiko harremanari" erreferentzia egiten diona: errespetua, diskrezioa eta/edo konfidentziasuna.
	Egoera bat deskribatzen dut "taldearekiko harremanari" erreferentzia egiten diona: interesa, integrazioa, eta/edo eskaini dizkidaten ikasteko aukerak.
	Egoera bat deskribatzen dut erizaintzako prozedurak betetzeko moduei erreferentzia egiten diona.
	Nire praktikaldiaren alderdi positibo bat eta hobetzeko alderdi bat nabarmentzen dut.
<b>Zikloaren amaieran</b>	Praktikaldiaren amaieran, bi alderdi positibo eta hobetu beharreko bi alderdi.

Gogoeta-praktikaren baldere erantzun ahal izateko, ikasleei gomendatzen diegu galdera bakoitzari gutxi gorabehera 6 lerrotan erantzuteko eta kontuan hartzeko gogoeta-praktika egiteko bere baitan jarri behar duela arreta, dena delako gaia identifikatuz, aztertuz, balioetsiz, eta, hala behar denean, hobekuntzarako ondorioak planteatuz.

Lehen mailan, ikasleek gogoeta-praktika modu gidatuan egiten dute irakasle tutorearen laguntzaz; bigarren mailan, modu gidatuan; eta, hirugarren mailatik aurrera, modu autonomoan. Gogoeta-praktika ikaslearen autoebaluazio tresnan sartuta dago.

### **Autoebaluazio eta ebaluazio tresnak**

Autoebaluazio tresna ikasleak betetzen duena da, eta ebaluazio tresna, berriz, instruktoreak eta irakasle tutoreak betetzen dutena. Ikaskuntza emaitza berberak jasotzen dira bietan, baina ikaslearen autoebaluazio tresnan emaitzak lehen pertsonan daude definituta, eta instruktore eta irakasle tutorearen ebaluazio tresnan, hirugarren pertsonan. Autoebaluazio tresnak eta ebaluazio tresnak honako atal hauek dituzte:

- Ikaskuntza emaitza orokorrak: praktiken zikloa amaitu aurretik nahitaez gainditu beharrekoak dira (ezinbestekoak direnak horiz/laranjaz ageri dira, eta ezinbestekoak ez direnak, berdez).
- Ikaskuntza emaitza espezifikokoak: bigarren mailatik aurrera egiten direnak eta arloka bereizten direnak, ibilbidearen arabera (urdinez ageri dira).
- Gogoeta-praktika: soilik ikaslearen autoebaluazioan agertzen da.
- Ebaluatzeko eta kalifikatzeko sistema erakusten duen taula.

Lehen mailan erabilitako autoebaluazio eta ebaluazio tresnak 1. eta 2. eranskinetan ikus daitezke, hurrenez hurren.

Bestalde, dokumentu batean graduan egiaztatu beharreko prozedura guztiak biltzen dira, eta 3. eranskinean kontsultatu daiteke.

Ebaluatzeko eta kalifikatzeko sistema

Ikaskuntza emaitzak ebaluatzeko eta kalifikatzeko sistema definitzeko, ebaluazioak izaera formatiboa izan behar zuela erabaki zen, eta tutoretza prozesuan sartu zen. Era berean, oso garrantzitsutzat jo zen practicuma ebaluatzea eta kalifikatzea zikloaren erdialdean eta amaieran, agenteen arteko feedbacka errazte aldera. Ebaluazioa eta kalifikazioa egiteko, honako erabaki (7) hauek hartu ziren:

- Ikasleak bi gogoeta-praktika egin behar ditu, bat zikloaren erdialdean, eta beste bat, amaieran.
- Ikasleak ikaskuntza emaitza orokorren, espezifikoen (2. mailatik aurrera) eta gogoeta-praktikaren autoebaluazio bat egin behar du, zikloaren erdialdean eta amaieran. Komenigarria izango litzateke tutoretza bakoitzean ikasleak azaltzea, adibideen bidez, ikaskuntza orokor ezinbestekoen eta ezinbestekoen eta espezifikoen item bakoitza. Hala, ikasleak, tutoretza egiteko unean, item bakoitzean adierazitako ikaskuntza emaitzaren lorpena justifikatu ahal izango du. Era berean, garrantzitsua da ikasleak kalifikazio eremuak betetzea. Horrela, irakasle tutoreak eta instruktoreak practicumean ikasleak berak egindako autoebaluazioari buruzko informazioa izango dute.
- Gomendagarria da tutoretza bakoitza egin aurretik, instruktorea eta irakasle tutorea elkartzea, ebaluazioari buruzko alderdiak adosteko.
- Instruktoreak ikaslea lortzen ari den ikaskuntza emaitza orokorren eta espezifikoen (2. mailatik aurrera) ebaluazioa egin behar du, zikloaren erdialdean eta amaieran. Jakin behar du irakasle tutorea prest dagoela ebaluazio tresnari eta ikaslearen eboluzioari buruzko edozein zalantza argitzeko.
- Irakasle tutoreak gogoetazko praktikak ebaluatuko ditu, zikloaren erdialdean eta hura amaitu aurretik.
- Zikloaren erdialdean, ikaskuntza emaitza orokorrak eta lehen gogoeta-praktika kalifikatuko dira, eta ikaskuntza emaitza espezifikoak (2. mailatik aurrera) ebaluatuko dira (kalifikatu gabe). Bai bigarren tutoretzan bai azkenekoan, garrantzitsua da egindako ebaluazioa justifikatzeko arrazoiak azaltzea ikasleari. Ikasleak egoeraren berri izanez gero, practicumean eboluzioa hobetzeko aukera izango du. Hortaz, zikloaren erdialdean

egindako tutoretza bereziki garrantzitsua da. Eboluzioa txarra dela ikusten bada, ez da hurrengo tutoretzaren zain geratu behar; haatik, aparteko tutoretza bat egin beharko litzateke, ikaslearen eboluzioaren berri izateko.

- Zikloa gainditzeko, ikasleak ezinbesteko ikaskuntza emaitza orokorrak lortu behar ditu nahitaez.
- Ikaskuntza emaitzetan zehaztuko dira, hala behar bada, arloaren ezagutzak, zeinak zentro/unitate/zerbitzu bakoitzaren instruktoreekin zehaztuko baitira.
- Zikloaren amaieran, ikaskuntza emaitza espezifikoak (2. mailatik aurrera) eta bigarren gogoeta-praktika kalifikatuko dira, eta ikaskuntza emaitza orokorrak ebaluatu eta kalifikatuko dira, hala behar bada. Kalifikazioa hiru agenteen artean adostuko da. Practicumaren zikloa amaitzeko, ikaslearen azken kalifikazioa eta ebaluazio tresna hiru agenteek sinatu beharko dituzte.

Practicumaren kalifikazioa maila bakoitzean 2. taulan ikus daiteke.

2. taula: practicumaren kalifikatzeko uneak eta puntuen banaketa maila bakoitzean.

Maila	Zikloaren erdialdean				Zikloaren amaieran				Amaierako nota
	Ikaskuntza emaitza orokorrak		Ikaskuntza emaitza espezifikoak	Gogoeta-praktika	Ikaskuntza emaitza orokorrak		Ikaskuntza emaitza espezifikoak	Gogoeta-praktika	
	Ezinbeste koa	Ez-ezinbeste koak			Ezinbeste koa	Ez-ezinbeste koak			
1	2	0	Ez dago	1	3	3	Ez dago	1	10
2	1	0	0	1	1	2	4	1	10
3	1	0	0	1	0	3	4	1	10
4	1	0	0	1	0	3	4	1	10

Arloko ikaskuntza espezifikoak betetzeagatik zikloaren amaieran ematen diren 4 puntuak nola banatzen diren 3. taulan erakusten da.

3. taula: arloko ikaskuntza espezifikoak betetzeagatik zikloaren amaieran emandako 4 puntuen banaketa

Ikaskuntza emaitza ESPEZIFIKOEN kalifikazioa MODU GIDATUAN		
Baliospena, Diagnostikoa Plangintza	eta	<b>0 puntu</b> = erdia baino gutxiago lortzen badu <b>0.5 puntu</b> = erdia edo gehiago lortzen badu <b>0.75 puntu</b> = <b>guztiak</b> lortzen baditu <b>1 puntu</b> = <b>guztiak bikain</b> lortzen baditu
Esku hartzea		<b>0 puntu</b> = erdia baino gutxiago lortzen badu <b>1 puntu</b> = erdia edo gehiago lortzen badu <b>1.5= guztiak lortzen baditu</b> <b>2 puntu</b> = <b>guztiak bikain</b> lortzen baditu
Ebaluazioa erregistroak	eta	<b>0 puntu</b> = erdia baino gutxiago lortzen badu <b>0.5 puntu</b> = erdia edo gehiago lortzen badu <b>0.75 puntu</b> = <b>guztiak</b> lortzen baditu <b>1 puntu</b> = <b>guztiak bikain</b> lortzen baditu

Eta 4. taulan ikus daiteke nola dagoen jasota ebaluazio eta kalifikazio sistema ebaluazio tresnan, bigarren mailatik aurrera.

4. taula: Ebaluatzeko eta kalifikatzeko sistema ebaluazio tresnan

<b>EBALUATZEKO eta KALIFIKATZEKO SISTEMA</b>		<b>Nota</b>
Ikaskuntza orokorrak emaitza	<b>0 puntu</b> = 1 edo gehiago badaude lortu gabe <b>1 puntu</b> = guztiak lortzen baditu	
Ikaskuntza orokorrak emaitza	<b>Ebaluatu baina EZ kalifikatu</b>	
Ikaskuntza espezifikoak emaitza	<b>Ebaluatu baina EZ kalifikatu</b>	
Autoebaluazio orriaren "gogoeta-praktikaren" atalak	<b>0.1 puntu</b> = erantzundako atal bakoitzeko <b>0,2 puntu</b> = pentsamendu kritikoz erantzundako atal bakoitzeko	
Ikaskuntza orokorrak emaitza	<b>EZINBESTEKOAK da guztiak lortzea gairiditzeko</b>	
Ikaskuntza orokorrak emaitza ez-ezinbestekoak	<b>0 puntu</b> = 2 edo gehiago badaude lortu gabe <b>1 puntu</b> = 1 lortu gabe badago <b>2 puntu</b> = guztiak lortzen baditu <b>3 puntu</b> = guztiak bikain lortzen baditu	
Arloko ikaskuntza emaitza espezifikoak	<b>4 puntura arte</b> (kalifikatzeko modua, dagokion emaitzen orrian)	
Autoebaluazio orriaren "gogoeta-praktika"	<b>0 puntu</b> = ez du erantzun <b>0.5 puntu</b> = erantzun du <b>1 puntu</b> = pentsamendu kritikoz erantzun du	
<b>AZKEN KALIFIKAZIOA</b>		

## BIBLIOGRAFIA

1. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Graduako Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia. [kontsulta, 2021/6/3]; Eskuragarri: <https://www.ehu.es/es/web/estudiosdegrado-graduakoikasketak/ebaluaziorako-arautegia>.
2. ERABAKIA, 2019ko uztailaren 24koa, Graduako eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearena eta Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordearena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoen arautegia onartzeko dena, Gobernu Kontseiluan 2019ko uztailaren 12an onartu zena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria [Internet], 147. zk., (2019ko abuztuaren 6a) [kontsulta, 2021/5/13] Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/08/1903746a.pdf>



3. Biggs J. Calidad del aprendizaje universitario. Madrid: Narcea; 2020.
4. Cano E. La evaluación de competencias en la educación superior. Profesorado. Revista de Curriculum y Formación del Profesorado. 2008 [kotsulta, 2021/3/6];12(3),1-16.  
<https://www.ugr.es/~recfpro/rev123COL1.pdf>
5. Tejada Fernández J. El prácticum en educación superior. Algunos hitos, problemáticas y retos de las tres últimas décadas. REDU. Revista de Docencia Universitaria. 2020 [kotsulta, 2021/3/6];18(1), 105-121. Eskuragarri: <https://doi.org/10.4995/redu.2020.13036>
6. Villardón L. Evaluación del aprendizaje para promover del desarrollo de competencias. Educatio Siglo XXI. 2006 [kotsulta, 2021/6/3]; 24,57-76. Eskuragarri: <https://revistas.um.es/educatio/article/view/153/136>
7. Uranga Iturriotz MJ, Gil Molina P, Alberdi Erice M, Barandiaran Lasa M, Eizmendi Garate I, Elordi Güenaga U, et al. Diseño del Practicum del Grado en Enfermería. Practicumaren diseinua Erizaintzako Graduan. [Internet]. 2022. [kotsulta, 2022/04/01]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/56179>